

21. atala ESTANPIE

- Jone, aurrekoan “Estanpa” izeneko dantza bat aipatu zenuen, zer da hori?

Aritzi izugarri gustatzen zitzaion herriko jaietan dantzarietara begira egotea eta berak ere handiagotan dantza taldean sartzeko gogoan zuen. Hala ere “Estanpa”-renak pixka bat aztoratu zuten.

- Normala hori galdetzea Aritz, ez dugu askotan egiten, nahiz eta orain gehiagotan egiten saiatzen garen dantza hori ere jendarteratu dadin.
- Zein da? San Migeletako azkeneko egunean egiten den hori?
- Horixe bera! – azaldu zuen neska – 1886. urtean Durangon ospatzekoak ziren Euskal Jaiak zirela eta Iurretako dantzarietara, Juan Antonio Mogel idazlearen “Peru Abarka” liburutik gorulari edo ehuleen lanbideari dagozkion ber-soak hartu eta ikuskizun hori prestatu zuten.
- Zer ideia polita! Eta orduan “Estanpan” gorulari edo ehuleen lanak dira dantzariok egiten dituzuenak?
- Lihoa nola egiten den erakusten da dantza baino ia antzezpena gehiago den honetan. – Jonek berari irakatsi zioten bezala azaldu zion bere nebari - Lehenengo lihoa jo egiten da, hasieran “mazoekin” eta gero “ezpatekin”, ondoren “txarrantxearekin” orrazten da eta amaitzeko “goruan” haritu.
- Egia da! Erdian mazo haundi batzuekin egoten dira!
- Eta inguruan beste tresnak. Eta hasieran esaten den bezala “batzuk ekiten deutze zortzikoari eta besteek erantzuteari.”

- Polita da, ikusteko eta baita entzuteko ere!
- Bai, musika hau, Valentin Zubiaurre garaitarrak konposatu zuen. Garai hartan Madrilgo “Erret kaperako” zuzendaria zen bera!
- Niri gehien gustatzen zaidana garai hartan lan nola egiten zuten ikustea da Jone!
- Egia! Lanbide hauek galtzar edo galduta daude gehienak, baina badugu gure artean oraindik artisautzari eusten dion jendea ere. Garai berrietara egokitu beharra dago baina sustraiak galdu gabe Aritz!
- Sustraiak galduz gero ihartu egingo gara eta! – Amaitu zuen mutikoak barrez.

ARIKETA:

- Nola du izena marrazkian azaltzen den tresnak?

.....

